

# AMAGANDIKO EDOSKITZEARI BURUZKO ARAUDIA

NAFARROAKO OSPITALEGUNEA



## EDOSKITZE BATZORDEA NAFARROAKO OSPITALEGUNEA

2021eko martxo

## EDOSKITZEARI BURUZKO NAFARROAKO OSPITALEGUNEKO ARAUDIA, IHAN OSPITALE BATERAKO

---

Nafarroako Ospitalegunean (NO) lan egiten dugun profesionalak badakigu amagandiko edoskitzea dela haurtxoak elikatzeko modurik egokiena, eta elikadura mota horrek dakartzan onura handiak aitortzen ditugu.

Ama guztiek\* informazio argia eta inpartziala jasotzeko eskubidea dute, beren seme-alabak nola elikatu eta zaindu nahi dituzten **askatasunez erabaki ahal izateko**.

Osasun-langileek laguntza emanen dute zeinahi delarik ere egindako hautua, elikadura-metodoagatik diskriminaziorik egin gabe.

### Helburuak

1. Ziurtatzea ama guztiek jasotzen dutela amagandiko edoskitzearen onurei eta formuladun elikadurak izan ditzakeen arriskuei buruzko informazioa, **erabaki informatua hartu ahal izan dezaten**.
2. Aukerak ematea osasun-langileei amagandiko edoskitzearen aldeko giroa sor dezaten eta beharrezko ezagutzak izan ditzaten amei laguntzeko eta informazioa emateko, hauek 6 hilabetez eskusiboki bularra ematen jarraitu dezaten, eta, ondoren, haurren dietaren parte gisa, gutxienez 2 urte edo gehiago izan arte jarrai dezaten, amaren eta/edo haurraren nahiaren arabera.
3. Ospitaleko profesionalen, SUOAZetakoen (Sexu- eta Ugalketa-osasunaren Arretarako Zentroak), oinarritzko osasun-laguntzako eta laguntza-taldeen arteko lankidetzak eta kooperazioa sustatzea, amagandiko edoskitzearen kultura bermatzeko.

### Araudi honen lagungarri

- a. Ospitaleko ezein lekutan ez da egonen esne formula egokituen, biberorien, txupeteen edo tetinen publizitaterik. Debekatuta daude produktu horien fabrikatzaileen logotipoak, liburuxkak edo laginak.

Hezkuntza-materiala Nafarroako Ospitaleguneko edoskitze-batzordeak onartuko du.

- b. Informazioa jaso ondoren beren esne formulekin elikatzea erabakitzen duten familiei irakatsiko zaie horiek nola prestatu, banaka edo talde txikietan, jai ondoren, inoiz ez lehenago.

C. Araudi hori betetzeari buruzko auditoria bat egingen da urtero, eta profesional guztiek **nahitaez bete beharko dute**, Nafarroako Ospitalegunek IHAN akreditazioan aurrera egitea erabaki baita.

Jarraian, IHAN (Jaiotzean eta Edoskitzean ematen den Asistentzia Humanizatze Ekimena) ospitaleetako 10 urratsak azalduko dira.:

**1. urratsa: Edoskitzeari buruzko idatzizko araudia izatea, langileei eta haurdun dauden emakume guztiei sistematikoki jakinarazteko.**

- 1.1 Haurdun dauden emakumeekin eta amekin harremana duten **osasuneko** profesional guztiei emanen zaie araudi honen berri.
- 1.2 Haurdun daudenei eta haien bikotekideei jakinaraziko zaie.
- 1.3 Eskuragarri izanen da.

**2. urratsa: Langileak trebatzea, praktikan jar dezaten.**

2.1 Haurdun daudenekin eta amekin harremana duten profesional guztiek edoskitzearen maneiuari buruzko prestakuntza jasoko dute, beren lanbide-kategoriari dagokion mailan.

Halaber, biberoiak behar bezala prestatzen eta lotura afektiboa indartzen irakatsi beharko diete amei eta haien bikotekideei, bularra ez ematea erabakitzen dutenean.

**3. urratsa: Haurdun dauden emakume guztiei edoskitzearen onurei eta maneiuari buruzko informazioa ematea.** SUOAZetatik egingen da.

3.1 Jaiotze aurreko zainketan parte hartzen duten langileek haurdun dauden emakume guztiei eta haien bikotekideei bularra emateak dakartzan onuren berri emanen diete, baita formula bidezko elikaduraren arrisku potentzialen berri ere, eta profesional sanitario baten bidez banakako eta/edo taldeko informazioa jasoko dute haurdunaldiko 32. astea baino lehen.

**4. urratsa: Erditzearen ondorengo ordu erdian bularra ematen laguntzea.**

4.1 Ama guztiak animatu behar dira haurra jaio ondoren larruazala larruazalarekin etengabe izatera, gutxienez bizitzako lehen 60-90 minutuetan, zeinahi delarik ere aukeratutako elikadura-modua.

**5. urratsa: Amei erakustea nola eman bularra eta nola jarraitu bularra ematen, baita haurtxoengandik bereizi behar badute ere.**

5.1 Ama guztiei bularra emateko laguntza eskainiko zaie jaio ondorengo lehen 6 orduetan, baita haurtxoengandik bereizi behar badira ere.

5.2 Behar den laguntza eman behar zaie, haurrak bularrari ongi heldu diezaion eta amek esnea eskuz ateratzen jakin dezaten.

Profesionalek zein amek jakin behar dute zein diren ama-esnearen transferentzia eraginkorraren zeinuak eta zein den bularra eraginkortasunez ematen ari dela jakiteko modua.

5.3 Haurretatik bereizi behar duten amak esnea egunean gutxienez 8 aldiz ateratzera animatuko dira; eskuz eta/edo erauzgailuekin irakatsiko zaie.

Haurtxoekin egoten eguneko 24 orduetan utziko zaie.

## **6. urratsa: Jaio berri diren hurrei ama-esnea ez den beste elikagairik edo edaririk ez ematea, medikuak hala agindu ezean.**

6.1 Edaririk edo formula artifizialik ez zaie eman behar bularra hartzen ari diren haurtxoei, salbu eta indikazio klinikoak badago edo amak informazioa jaso ondoren hautu hori egin badu.

Arrazoi klinikoak tarteko, gehigarriak emanen badira hori izanen da Pediatriako profesional batek hala erabaki duelako.

Osagarria emateko arrazoiak gurasoekin eztabaidatu behar dira eta haurraren historia klinikoan idatzi behar dira.

## **7. urratsa: Elkarren ondoan egonen dira haurra eta ama eguneko 24 orduetan.**

7.1 Amak soilik bananduko dira haurrengandik egoera klinikoak beste eremu batzuetan zaintzak behar dituenean.

7.2 Amaren/haurtxoaren kontaktu fisikoa sustatuko da. Horrek gose-zeinuak ezagutzea errazten du, atxikimendua errazten du eta lotura hobetzen du.

## **8. urratsa: Bularra eskaeraren arabera ematera animatuko dira amak.**

8.1 Eskaeraren araberrako edoskitzea babestuko da.

Langileek beren haurren gose-zeinuak ezagutzen irakatsi behar diete amei. Lagundu ere eginen diete, erantzun diezaieten bai seinaleei bai haurtxoen eskaerari.

8.2 Gaueko hartualdiek esnea ekoizteko duten garrantzia ezagutu behar dute.

**9. urratsa: Bularra hartzen ari diren haurtxoei ez ematea biberoirik, tetinarik edo txupeterik.**

9.1 Langileek ez dute gomendatuko tetinarik edo txupeterik erabiltzea edoskitzaroa ezarri bitartean.

9.2 Ez da gomendatzen txoperak erabiltzea, muturreko egoeretan eta ahalik eta denbora laburrenerako izan ezik.

**10. urratsa: Edoskitze naturalari laguntzeko taldeak ezar daitezten sustatzea, amak ospitaletik ateratzen direnean haiekin harremanetan jar daitezten saiatzea, eta amari bere eremuan edoskitzeari laguntzeko dauden baliabideak eskaintzea.**

10.1 Nafarroako Ospitalegunek eguneroko edoskitze-tailerrak eskaintzen ditu SUOAZetan.

10.2 Jaiotza ondoko aldian, bularra ematen lagun dezaketen pertsonekin eta tokiko erakundeekin harremanetan jartzeko modua erraztu behar da.

10.3 Bularra ematen laguntzeko taldeak bularra emateko araudia garatzen laguntzera gonbidatuko dira.

**11. urratsa: Giro abegitsua eskaintzea bularra ematen ari diren amak dituzten familiei.**

113 Haurtxoari bularra eman nahi dioten amendako eremu eroso bat prestatuko da, haien pribatutasuna gerizatuta.

IHAN ospitaleak, gainera, urrats hauek bete behar ditu:

→ **Errespetatzen du ama-esnearen ordezkioak merkaturatzeko nazioarteko kodea**

- a. Debekatuta dago ama-esnearen suzedaneoen, biberorien, txupeteen, tetinen edo merkaturatzeko materialen lagin edo opariak banatzea.
- b. Haurren formula prestatzeko erakustaldiak debeketzen dira behar ez dutenentzat.

→ **Amarekiko lagunarteko arreta:** Erditze prozesu normalerako arreta estrategiaren arabera artatzen du erditzea. Pixkanaka ezartzeko gomendioa.

→ **Bularra ematen ez duten amei ere kalitate handieneko sostengua ematen die.**



Agiri honetarako erreferentziak:

Edoskitzeari buruzko Nafarroako Ospitaleguneko araudia, IHAN ospitale baterako

Argibide gehiago:

EDOSKITZE BATZORDEA - NAFARROAKO  
OSPITALEGUNEA  
2021eko martxoa